



Esp.-kodea: 2015SAPL0004

UDAL PLENOA
Bilkura ezohikoa

BILKURA DATUAK

EGUNA: 2015/04/16	TOKIA Udaletxea
HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 18:00 - 18:25	

BILDUTAKOAK:

Lehendakaria: Inazio Azkarragaurizar Larrea (BILDU)

Zinegotziak: Amaia Larrañaga Galdos (BILDU)
Ander Rodriguez Lejarza (BILDU)
Josebe Landaluze Ruiz de Alegria (BILDU)
Maidor Morras Azpiazu (BILDU)
Omer Arregi Biain (BILDU)
Iratxe Zeziaga Mendizabal (BILDU)
Juan Antonio Barriocanal Arrieta (BILDU)
Joseba Erramun Askasibar Zendoia (BILDU)
Kepa Urteaga Garcia (BILDU)
Juan Carlos Garitano Ezcurra (EAJ-PNV)
Maria Ubarrechena Cid (EAJ-PNV)
Ibon Arrupe Aldecoceta (EAJ-PNV)
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)
Aritz Arrieta Kabiketa (PSE-EE)
Gregorio Achutegui Basagoiti (PSE-EE)
Francisco Garcia Raya (PSE-EE)
Miren Lorea Lana Jauregi (PSE-EE)
Joxe Etxeberria Iztueta (ARALAR)

Idazkaria: Iñigo Garitano Larrañaga

Beste funtzionario batzuk: Iñaki Balzategi Garai, Kontuhartzailea.

BILDU EZ DIREN
UDALKIDEAK: Josu Pereda Leceta (BILDU)
Iciar Lamarain Cenitagoya (PP)



Esp.-kodea: 2015SAPL0004

BERTARATZE ETA IRTEERAK: Bilkura hasi denetik bukaeraraino ez da bertaratze zein irteerarik izan.

INAZIO AZKARRAGAUZAR (Lehendakaria):

Arratsaldeon eta ongi etorriak guztioi. Hasiera emango diogu gaurko plenoari.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, 2015eko otsailaren 23an egindako bilkuraren akta onartu du.

2.- GIPIZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN ESKU UZTEA UDAL GARRAIO ARLOKO LAU ASPEKTUREN KUDEAKETA, ETA HORRETARAKO LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA (2012ZZER0007)

Udal Plenoak, aho batez, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Udalaren Zerbitzu Teknikoek txostena aurkeztu dute eta honetan proposatzen da ontzat ematea Arrasateko Udalaren eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren arteko lankidetza hitzarmena sinatzea, horren bidez kudeatzeko gomendioa eginez Agintaritzaren alde errekaru berezia, irisgarritasun diagnostikoa, irisgarritasuneko gailuen banaketa eta zigortzeko prozeduren lanak gauzatzeko. Era berean, proposatzen da ontzat ematea 315,15 €ko gastua kudeatzeko gomendioaren lanei aurre egiteko.

Halaber txostenak hurrengo azaltzen du:

- a) Arrasateko Udalak, 2013ko otsailaren 5ean egindako osoko bilkuran, onartu zituela bai sartzea Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan, eta baita hartarako dagozkion hitzarmenak sinatzea.
- b) Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzar Nagusiak 2013ko apirilaren 18ko ohiko bileran onartu zuen Arrasateko Udala kide izatea.
- c) Oraingo honetan Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak aurkeztutako dokumentuak, kudeaketa gomendioaren hedapenari dagokion hitzarmeneko puntuak jasotzen ditu, hain zuzen ere; *irisgarritasun unibertsalaren kontrolaren eta mugikortasunaren diagnostia, irisgarritasun mekanismoak aktibatzekeko urrutiko aginteen banaketa, tarifa-izakerako*



Esp.-kodea: 2015SAPL0004

aparteko errekarjuaren kudeaketa eta arau-hauste bezala tipifikatutako egintzengatik tramitatu beharreko zehapen prozeduren izapidetzea.

1.-Erregelamenduaren I. Tituluan erregulatzen da irisgarritasun unibertsalaren kontrolaren eta mugikortasunaren diagnostia.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak, Udalaren eskumeneko errepide bidezko garraio-zerbitzu publikoak dituen irisgarritasunaren kontrolaren diagnosi proposamen bat eta mugikortasunaren diagnosi proposamen bat egingo du, ikuskatu beharreko aspektu, zerbitzu eta azpiegiturak identifikatuz. Proposamen horretan, azterlanaren metodologia ezarriko du.

Proposamen hori oinarritzat hartuta, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak landa-lana burutuko du, gauzatzen den egiaztatze bakoitzari buruzko fitxa prestatuz. Landa-lana bukatu ostean, horren emaitza jasoko duen txosten bat prestatu beharko du Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak; txosten horrek landa-lanetik ateratako ondorioak eta garraio sistemaren irisgarritasun eta mugikortasun beharrezanetara etengabeko egokitzea gauzatzeko proposatzen diren neurriak ere jaso beharko ditu eta baita hurrengo urtean aplikatu beharko den diagnosi horren jarraipenaren proposamena ere.

2.- Erregelamenduaren 6. artikuluan aipatzen diren irisgarritasun mekanismoak aktibatzekeko urrutiko aginteen banaketa

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak eskuratu beharreko gailuen ezaugarri teknikoak definituko ditu, Udalaren titulartasunpeko garraio publikoaren zerbitzura adskribitutako ibilgailuak oinarritzat hartuta.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak gailu horien hornikuntza eta zuzkidura kudeatuko du.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak gailuak banatuko ditu horiek eskatu dituzten pertsonen artean eta produktu horiek kontsumitzaileak defendatzeko araudiarekin bat-etortze ezagatik sor daitezkeen erreklamazioen gaineko erantzukizuna bere gain hartuko du.

3.-Erregelamenduaren IV. Tituluan arautzen den tarifa-izaerako aparteko errekarjuaren kudeaketa

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak, aparteko errekarjuak MUGI sistemaren ustiapena ahalbidetzen duten informazio sistemetan integratzeko beharrezkoak diren garapen informatikoak egingo ditu.

Bidaariak aparteko errekarjua ordaindu ezingo balu baliozko edo behar bezala balidatutako titulurik gabe zerbitzu publikoa erabiltzen ari zela egiaztatzeko unean bertan, eta bidaia jarraitu nahiko balu, gidariak edo ikuskatzaileak salaketa orria beteko du; bertan, bidaiariaren identitatea, eguna, ordua, linea eta gertatutakoa jasoko dira (titulurik gabe edo baliozko txartelik gabe bidaiatzen ari bada, eta azken kasu horretan txartelaren titularra identifikatuko da), Erregelamenduaren 47. artikuluan aurreikusten den aparteko errekarjua ordain dezan.

Udalak, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari garraio-enpresa eragileetako gidari edo ikuskatzaileak betetako salaketa-orria helaraziko dio.



Esp.-kodea: 2015SAPL0004

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak salaketa-orrian ezarritako epean aparteko errekararen ordainketa egin dela egiaztatuko du.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak bere baliabideen bitartez aparteko errekarua biltzeko egin beharreko guztiak egingo ditu.

Eta salatutako bidaiariak ez balu Erregelamenduak ezarritako ordainketa- betebeharra beteko horretarako ezarritako epean, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak dagokion salaketa igorriko dio Udalari, horrek dagokion zehapen prozedura has dezan Erregelamenduak erakundetutako erantzukizunak xahutzeko.

Garraio zerbitzua emateko emakida duten garraio-enpresa eragileek kreditu eskubideak izango dituzte Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan aparteko errekarua ordaintzean, Erregelamenduaren arabera garraio-titulua erosi behar duten erabiltzaileek gordailututako saldoekiko.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak geroagoko momentu batean eta aldizka egiaztatuko du kreditu- eskubide horien likidazioa, erabiltzaileek gauzatutako kantzelaio guztien arabera eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzar Orokorrean zehaztutako likidazio eta konpentsazio sistemaren arabera.

4.-Erregelamenduaren V. Tituluan potentzialki arau-hauste bezala tipifikatutako egintzengatik tramitatu beharreko zehapen prozeduren izapidetzea

Kudeaketa-gomendio honek bere barne hartuko ditu, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak gauzatu beharreko hurrengo prozedura- jarduerak:

- a) Arau-hauste baten komisio posible bat komunikatzeko dokumentu, jarduera eta ekimenen jasotzea.
- b) Prozedura zehatzaile bat irekitzea justifikatuko luketen inguruabarrak ematen diren zehazteko beharrezkoak diren aurretiazko egintzak.
- c) Udalari, prozedura-zehatzailea hasteko akordioaren proposamena bidaltzea instrukzio-organoa zein izango den determinatuz edo, bere kasuan, Udalari prozedura hasteko desegokitasun adierazpena bidaltzea.
- d) Udalari, behin-behineko neurrien proposamena bidaltzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko, otsailaren 20ko, 2/1998 legearen, 31. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- e) Agintaritzako instrukzio-organoak egoki deritzon frogen praktika gauzatzea.
- f) Ebazpen proposamena erabakitzea eta interesdunei jakinaraztea eta hori Udalera bidaltzea, espediente administratiboan dagoen dokumentazio guztiarekin batera.

Agintaritzak bere artxiboetan gordeko du benetakotzat egiaztatutako espediente osoaren kopia bat.

g) Interesdunek aurkeztutako alegazio, dokumentu edo informazio guztien jasotzea.

h) Interesdunei egintza eta erresoluzioak jakinaraztea eta jakinarazpen hori egiaztatukoduen dokumentua jaso eta gordetzea.



Esp.-kodea: 2015SAPL0004

Bere aldetik, Hitzarmen honetan jasotzen den kudeaketa-gomendioa egoki bete dadin, Udalak hurrengo ekintzak burutzeko konpromisoa hartzen du:

- a) Erregelamenduan arau-hauste bezala tipifikatutako egintzen salaketak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzara berehala bidaltzea, eta baita horietara eratzikitzen den edo Erregistroetan aurkeztu izan den beste edozein dokumentazioa ere.
- b) Ahalik eta lasterren Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzara bidaltzea Alkateak edo Toki Administrazioiko organo eskudunak emandako egintza edo ebazpen guztien kopia, horrek dagozkion jakinarazpenak egin ahal ditzan.
- c) Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzara ahalik eta lasterren bidaltzea interesdunek, prozeduraren edozein fasetan, Erregistroetan aurkezten dituzten alegazio, dokumentu eta informazio guztiak.
- d) Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak eskatzen dizkion informazio eta datuak ematea.

Azkenik adierazi Arrasateko udalari 315,15 ko ekarpena dagokiola ordaintzea Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari, Udala Batzar-Orokorreko parte-hartzailea den heinean eta hau dela eta dagokion portzentaiaren arabera, aipatutako lanei aurre egiteko. Ondorioz Udalaren Zerbitzu Teknikoek ekarpenaren onarpena proposatzen dute.

Aurrekoarekin, hauxe proposatzen du, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako Batzordeak:

LEHENENGO.- Ontzat ematea Arrasateko Udalaren eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzea, horren bidez kudeatzeko gomendioa eginez Agintaritzaren alde errekareru berezia, irisgarritasun diagnostikoa, irisgarritasuneko gailuen banaketa eta zigortzeko prozeduren lanak gauzatzeko.

BIGARREN.- Alkatea ahalbidetzea hitzarmena sinatzeko.

HIRUGARREN.- Onartzea Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak eskatutako 315,15 €ko aportazioa, kudeatzeko gomendioaren lanei aurre egiteko “Garraio Agintaritzako Ekarpenera” kontusailaren kontura.”

3.- UDALBATZARRARI JAKINARAZTEA 2014KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN ONARPENA (2015RBAR0007)

Udal Plenoak honen berri jakin du, Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko martxoaren 30eko bilkuran Udalaren 2014ko Aurrekontuaren likidazioa onartu zuela.

Jarraian, onartutako likidazioaren akordio osoa jasotzen da:



Esp.-kodea: 2015SAPL0004

“Tokiko Gobernu Batzarrak, abo batez, Ogasun Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Kontu-hartzaileak 2014ko aurrekontuaren likidazioaren berri eman du, eta zenbaki laburpena da hauxe:

1. 2014KO AURREKONTU EMAITZAREN KALKULUA

A	Eskubide garbiak, 2014ko ekitaldiko likidazioa	31.666.952,38 €
B	Onartutako obligazio garbiak, 2014	28.703.602,49 €
C	2014ko ekitaldiko aurrekontu operazioen emaitza (A – B)	2.963.349,89 €
D	Deuseztatutako gastuen soberakinen obligazioak	224.710,11 €
E	Deuseztatutako hondarren diru-sarrereren eskubideak	-246.693,57 €
F	Itxitako ekitaldien aurrekontu operazioen emaitza (D + E)	-21.983,46 €
G	2014ko ekitaldiko aurrekontu emaitza (C + F)	2.941.366,43 €
H	Doitzea:	
	H.1 - 2013ko likidazioko diruzaintzako soberakinez finantzatutako obligazio onartuak (eranskinak – 1.a)	589.981,87 €
	H.2 – 2014ko ekitaldiko finantza doitzea (eranskina 2)	-898.801,92 €
	DOITZEA GUZTIRA (H.1 + H.2)	-308.820,05 €
I	AURREKONTU EMAITZA DOITUA (G + H)	2.632.546,38 €

2. 2014KO LIKIDAZIOKO DIRUZAINZAREN SOBERAKINA

1	KUTXAKO IZAKINAK, 2014-12-31n	5.898.611,92 €
2.1	Ekitaldi korrontean kobratzeke daudenak	2.073.143,57 €
2.2	Itxitako ekitaldietan kobratzeke daudenak	2.466.804,35 €
2.3	Aurrekontukoak ez diren zorrak	652.675,77 €
2	KOB RATZEKE DAUDEN SALDOAK GUZTIRA (2.1+2.2+2.3)	5.192.623,69 €
3.1.	Ekitaldi korrontetako hartzekodunak	2.144.128,11 €



Esp.-kodea: 2015SAPL0004

3.2	<i>Itxitako ekitaldietako hartzekodunak</i>	8.107,59 €
3.3	<i>Diru-sarreren aurrekontuaren hartzekodunak</i>	---
3.4	<i>Aurrekontukoak ez diren hartzekodunak</i>	1.498.805,92 €
	ORDAINTZEKE DAUDEN SALDOAK GUZTIRA (3.1 + 3.2 + 3.3 + 3.4)	3.651.041,62 €
4	DIRUZAINZAKO SOBERAKIN GORDINA (1+2-3)	7.440.193,99 €
5	DOITZEA:	
	- AFEKTATUTAKO FINANTZAKETA (Ikusi eranskina- 3.a)	-1.680.553,42 €
	- ZALANTZAZKO KOBRAKETA (Ikusi eranskina- 4.a)	-1.937.955,32 €
	DOITZEA GUZTIRA (5)	-3.618.508,74 €
6	GASTU OROKORRETARAKO DOITUTAKO DIRUZAINZAKO 2014KO SOBERAKINA (4-5)	3.821.685,25 €

Bestalde, udal sailek hainbat eskabide egin dituzte, 2014ko aurrekontuko gastu kate jakin batzuk (berariazko finantzaketa duten bigarren kapituluko gastuak, inbertsioen kapituluko kontu-sailez gain), onartutako obligazio aldira iritsi ez direnak (onartutako faktura edo ziurtagiria), diruzaintzako soberakinaren kontura finantzatu daitezke. Gastu kate horien xehetasuna agertzen da diktamen honen eranskin moduan, eta 3.049.666,23 €-ko zenbateko da (eranskineko 5. agiria, geroko ekitaldien konturako konpromiso kredituak deskontatu eta gero).

Eskaera horiei dagokienek, udal kontu-hartzaileak adierazi du ez dagoela legezko trabarik edo eragozpenik eskatutakoa sartzeko, kapital eragiketei dagozkien gastuak baitira edo finantzatzen dituzten diru-sarrera espezifikoak dituztelako, eta, halaber, eskatutako baldintzak betetzen baitituzte aplikatzeko den araudiak (21/2003 FA, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuena, 2/2012 Lege Organikoa, Aurrekontua Egonkortu eta Finantzari Eustekoa, 1/2013 FA, Gipuzkoako Toki Erakundeen aurrekontua egonkortu eta finantzari eustekoari buruzko finantza babesaren eskumena garatzen duena) nabiz 2014ko aurrekontua betetzeko arauak.



Esp.-kodea: 2015SAPL0004

2014ko aurrekontuaren likidazioaren proposamenari buruz eta 2015eko aurrekontura kreditu zerrenda sartzeari buruz, Ogasun Batzardeak aldeko txostena ematen die eta akordio proposamena egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

- 1) 2014ko udal aurrekontuaren likidazioa onartzea, udal kontu-bartzaileak egindako zenbaki laburpenaren arabera.*
- 2) Onartzea 2014ko aurrekontuaren zenbait gastu kredituen txertaketa 2015eko aurrekontuan, 3.049666,23 euroko zenbatekoa, honekin batera doanaren zerrendaren arabera, eta kopuru hori finantzatuko da lotutako finantzaketako diru-sarreraren bidez, zehazki, 1.680.553,42 euro, eta bestea, 1.369.112,81 euro 2014ko aurrekontuaren likidaziotik datorren diruzaintza soberakin likidoaren bidez.*
- 3) Indarrean dagoen aurrekontu araudian jasotakoa betetzeko, akordio honen berri ematea Udalbatzarrari, egingo den burrengo bilkuran.*

Azkenik, adieraztea onartutakoan, hala badagokio, bai 2014ko aurrekontuaren likidazioa bai gastu kredituak sartzea 2015eko aurrekontuan, akordio honetako 2. zenbakian jasotako 2014ko aurrekontuaren likidazioaren diruzaintza soberakinaren bidez, oraindik erabiltzeko soberakin bat egongo litzateke oraindik, 2.452.572,44 euroko zenbatekoa.

Horri buruz, Batzardeak uste du soberakin hori erabili behar dela, lehenik eta behin, 2015eko aurrekontuetan estaldurarik gabeko edo desbideraketa esanguratsuekin aurkitzen diren gastu konpromisoak (Arrasateri buruzko bideoaren ekoizpena eta enplegurako laguntza/beka programak) finantzatzeko, eta baita ere Udal langilegoaren 2011-2015 epealdian galdutako eros abalmena eta izandako murrizketak (2012ko abenduko ordainketa berezia, elkarkidetzak, ordainsarien eguneraketa eza, etab.) konpentsatzeko sortu beharreko funtsa finantzatzeko (bere ordainketa gaur egungo oztopo legalen desagerpenera baldintzatuta). Halaber, soberakin horrekin estaldura eman nahi zaio 2015eko aurrekontuan aurreikusitako mailegu eragiketa berriak saibesteko, zehazki 1.067.956,80 euro, uste baita banketxeek orain eskaintzen dituzten finantza baldintzetan garestia da mailegu kontratu berriak sinatzea, bereziki udalaren interesentzat. Guzti hori, noski, 2015eko ekitaldian zehar Udalbatzarrak, beste lehenitasunen arabera, akordio edo erabilera ezberdinak erabakitzeko dankan eskumenaren kaltetan gabe.”

4.- UDALBATZARRARI JAKINARAZTEA ITURBIDE EGOITZAREN 2014KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN ONARPENA.(2015RBAR0008).

Udal Plenoak honen berri jakin du, Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko martxoaren 30eko bilkuran Iturbide Egoitzaren 2014ko Aurrekontuaren likidazioa onartu zuela.

Jarraian, onartutako likidazioaren akordio osoa jasotzen da:

“Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Ogasun Batzardearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:



Esp.-kodea: 2015SAPL0004

‘Iturbide Egoitzako Zuzendaritza Batzordeak, 2015eko martxoaren 17an eginiko bilkuran, 2014ko Aurrekontuaren likidazioa onartu du, ondorengo laburpen numerikoarekin:

1.- 2014ko AURREKONTUAREN EMAITZAREN KALKULUA

A	2014 ekitaldian likidatutako eskubide garbiak	3.373.445,41
B	2014 ekitaldian onartutako obligazio garbiak	3.373.445,41
C	2014ko EMAITZA PRESUPUESTARIOA	0,00

2.-2014ko LIKIDAZIOAREN TESORERIAKO SOBERAKINA

1.- 2014-12-31N KAXA ETA BANKUEN SALDOA	403.610,41
2.1. Ekitaldiko Kobratu gabeko sarrerak		157.882,97
2.2. Aurreko ekitaldietako kobratu gabeko sarrerak		801,31
2.3. Aurrekontuz kanpoko zordunak		0,00
2. KOBRAITZEKO DAGOEN SALDOA GUZTIRA	158.684,28
(2.1.+2.2.+2.3.)		
3.1. Ekitaldiko ordaindu gabeko gastuak		419.476,46
3.2. Aurreko ekitaldietako ordaindu gabeko gastuak		0,00
3.3. Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak		142.818,23
3. ORDAINTZEKO DAGOEN SALDOA GUZTIRA		562.294,69
(3.1.+3.2.+3.3.)		
4. TESORERIAKO SOBERAKIN GORDINA (1+2-3)		0,00
5.1. Finantzaketa afektaturik duten gastuak		0,00
5. AJUSTEAK (5,1,+5,2,)		0,00
6. TESORERIAKO SOBERAKIN AJUSTATUA (4-5)		0,00

2014ko kontuen itxiera orekatzeko, Arrasateko Udalak ez du diru ekarpenik egin behar izan, hasieran aurreikusitakoa 200.671,86 €-koa bazen ere. Are gehiago, Iturbide Egoitzak Udalaren alde 22.056,10 €ko diru ekarpena egin du, urteko sarrera eta irteeren arteko emaitza presupuestarioa orekatzeko.



Esp.-kodea: 2015SAPL0004

Diru hori, aurreko ekitaldiekin alderatuta, neurri haundi batean behintzat, Foru Aldundiak onartutako tarifen eguneraketatik eta defizita estaltzeko egin duen ezohiko ekarpenetik sortu da, eta horrek balio izan du Udalak Iturbideko jardueran finantzatzaren dituen zeharkako gastuak eta Udalak egindako inbertsioen amortizazioak portzentai oso mugatu baten estaltzeko.

Iturbide Egoitzako Zuzendaritza Batzordeak 2014ko Aurrekontuaren Likidazioa onartzeko proposamena luzatzaren dio Tokiko Gobernu Batzarrari, aurrez Udaleko Ogasun batzorde informatzaileak dagokion diktamena eman beharko badu ere.

Ogasun Batzordeak Zuzendaritza Batzordearen proposamenarekin ados egonik, Tokiko Gobernu Batzarrari ITURBIDE EGOITZAko aurrekontuaren likidazioa onartzea proposatzen dio.”

5.- UDALBATZARRARI JAKINARAZTEA AUKEAREN 2014KO AURREKONTUAREN LIKIZAZIOAREN ONARPENA(2015RBAR0009)

Udal Plenoak honen berri jakin du, Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko martxoaren 30eko bilkuran AUKEAREN 2014ko Aurrekontuaren likidazioa onartu zuela.

Jarraian, onartutako likidazioaren akordio osoa jasotzen da:

“Tokiko Gobernu Batzarrak, abo batez, Ogasun Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Kirola Batzordearen Idazkariak Aukea Kirol Erakunde Autonomoaren 2014ko aurrekontuaren likidazioaren onespinari buruzko diktamena bidali du, 2015eko martxoaren 17ko bileran aztertuta, honelako laburpen numerikoarekin:

2014 EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZAREN KALKULUA

<i>A.- 2014 ekitaldian likidatutako eskubide garbiak</i>	<i>1.646.621,41 €</i>
<i>B.- 2014 ekitaldian onartutako obligazio garbiak</i>	<i>1.646.621,41 €</i>
<i>C.- 2014 ekitaldiko aurrekontu-operazioen emaitza (A-B)</i>	<i>0,00 €</i>
<i>D.- Hondar-obligazioetatik baliogabetutako gastuak</i>	<i>0,00 €</i>
<i>E.- Hondar-eskubideetatik baliogabetutako sarrerak</i>	<i>0,00 €</i>
<i>F.- Itxitako ekitaldietako aurrekontu-emaitza (D+E)</i>	<i>0,00 €</i>
<i>G.- 2014 Ekitaldiko Aurrekontu Emaitza (C+F)</i>	<i>0,00 €</i>
<i>H.- Doikuntzak:</i>	<i>0,00 €</i>
<i>DOITUTAKO AURREKONTU-EMAITZA (G+H)</i>	<i>0,00 €</i>



Esp.-kodea: 2015SAPL0004

2014KO LIKIDAZIOAREN TESORERIAKO SOBERAKINA

1. 2014-12-31N KAXA ETA BANKUEN SALDOA	116.181,38 €
2.1 Ekitaldiko kobratu gabeko sarrerak	16.352,91 €
2.2 Aurreko ekitaldietako kobratu gabeko sarrerak	9.371,09 €
2.3 Aurrekontuz kanpoko zordunak	1.862,66 €
2. KOBATZEKO DAGOEN SALDOA GUZTIRA (2.1+2.2+2.3)	27.586,66 €
3.1 Ekitaldiko ordaindu gabeko gastuak	83.665,63 €
3.2 Aurreko ekitaldietako ordaindu gabeko gastuak	0,00 €
3.3 Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	60.102,41 €
3. ORDAINTZEKO DAGOEN SALDOA GUZTIRA (3.1+3.2+3.3)	143.768,04 €
4. TESORERIAKO SOBERAKIN GORDINA (1+2-3)	0,00 €

Likidazio honen arabera Udalaren ekarpena 848.143,90 €koa da. Horrela, behin betiko aurrekontuan jaso zenaren % 95,23 izango da ekarpena.

Bestalde, Udal Plenoak, 2014ko ekainaren 3an hartutako erabakiaren ondorioz, AUKEA erakundea 2014ko abenduaren 31n desegin zen eta Arrasateko Udalak beregain hartu zuen kirol zerbitzuaren kudeaketa, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera, zuzeneko kudeaketaren modalitatean, Kirolen zinegotziari atxikirik.

Horretaz gain, Udal honek ordezkatu duenez AUKEA zena, izuera unibertsalez, eta, erakunde autonomoa desegin eta gero, egin gabe dauden eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatzea erabaki zuenez, eta kobratzeko dauden eskubideak eta ordaintzeko dauden betebeharrak, abenduaren 31n, udal aurrekontuan sartzea erabaki zenez, Kirola Batzordeari ondorengo proposatzen zaio:

1.- AUKEA Erakunde Autonomoaren 2014ko aurrekontuaren likidazioa ontzat ematea.

2.- Erabaki hau Ogasun Batzordeari jakinaraztea.”

Kirola Saileko buruak aurkeztutako AUKEA erakundearen 2014 ekitaldiko aurrekontuaren likidazio txostena kontuan hartuz, Kirol batzordeak ondorengo proposatu du:

- AUKEA Erakunde Autonomoaren 2014ko aurrekontuaren likidazioa ontzat ematea.

- Erabaki hau Ogasun Batzordeari jakinaraztea, beharrezkoa den izapidetza egin dezan.



Esp.-kodea: 2015SAPL0004

Ogasun Batzordeak likidazioaren espedientea aztertu ondoren eta Kirola Batzordearen proposamenarekin ados egonik, Tokiko Gobernu Batzarrari AUKEAko aurrekontuaren 2014ko likidazioa onartzea proposatzen dio.

6.- ARRASATEKO JABETZA PUBLIKOKO LANDA BIDEEN INBENTARIOA ONARTZEA.(2015IING0017)

Udal Plenoak, aho batez, Ingurumen Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Azken hamarkadetan oro har nabarmen jaitsi da baserri jarduera, eta Arrasaten ere horixe bera gertatu da. Horrek ekarri du landa bide asko eta asko ez erabiltzea eta, hortaz, ahaztuta izatea. Azken urteotan konturatu gara ez dakigula gauza handirik landa bide publikoen sareari buruz, galtzen ari diren bideak, azpiegitura handiko eraikuntzen ondorioz edo partikularrek pribatizatu egin dituztelako.

Arrasateko Udalak, jakinda zein garrantzia eta onura duen herriarentzat titulartasun publikoko landa bideen sarearen ezagutzak eta indarraldiak, kultura ondare moduan eta ondo pasatzeko eta komunikatzeko hainbat erabilera ere dutelako, Sendo SL injinerutza enpresa kontratu zuen, katalogatu eta gero inbentarioa egiteko. Azterketa horren helburua izan zen baserrietara doazen bide zolatuen inbentarioa egitea; hor sartzen dira bai Udalak urteetan asfaltatu edo hormigoitu dituenak bai zolatu ez direnak, hala nola, antzina-antzinako erabilera izan duten gurdi bideak eta bidezidorrak izan direnak. Aipatu lana 2006an eta 2007an egindakoa da, ikerlanean metodo historiko-geografikoa aplikaturik eta garrantzi berezia emanda auzotarren eta interesdunen parte hartzeari hasiera-hasieratik amaitu arte; tartean jendearentzako erakusketak eta kontsultak egon ziren (2010eko martxoan eta 2011ko apirilean).

Ingurumen sailean hainbat lehentasunek etenaldia ekarri zuten inbentarioari zegokionez; horregatik, 2014ko azaroan pertsona bat kontratatu zen lan horiekin jarraitzeko. Horren ondorioz erantzun barik zeuden kontsultak aztertu dira eta inbentario berri bat idatzi.

Arrasateko Jabetza Publikoko Landa Bideen Inbentarioko azken fase honetan Sendo SL enpresak erabili zituen irizpide eta euskarri berberak erabili dira, metodologiari, bideen deskripzio fitxei, lan egiturari, eta abarri dagokienez. Aurreko erakusketa publikoari dagokionez, hauetan bakarrik egin dira aldaketak, kontsulta behar zuten bideen fitxa indibidualetan, plano orokorretan eta SIG kartografia digitaleko fitxategietan.

Edukiei dagokionez, inbentario honek ondorengo agiriak ditu: - Inbentarioan jaso beharreko bideen fitxak - Memoria-eranskinak - Kontsulten txostena - Plano orokorrak eta - Kartografia digitaleko agiriak (SIG agiriak).

Gaia aztertu ondoren zera proposatzen dio, aho batez, Ingurumen Batzordeak Arrasateko Udalbatzarrari:



Esp.-kodea: 2015SAPL0004

- Arrasateko Jabetza Publikoko Landa Bideen Inbentarioa onartzea eta Arrasateko Udaleko ondasunen inbentarioan sartzea.”

7.- MOCIÓN PRESENTADA POR LAS JUVENTUDES SOCIALISTAS DE ARRASATE, RELATIVA AL RECHAZO A LA REFORMA DE LA ORDENACIÓN DE LAS ENSEÑANZAS UNIVERSITARIAS (2015SMOZ0007).

El Secretario da lectura a la siguiente moción presentada por las Juventudes Socialistas de Arrasate:

“RECHAZO A LA REFORMA DE LA ORDENACION DE LAS ENSEÑANZAS UNIVERSITARIAS

El pasado viernes 30 de enero, el Consejo de Ministros aprobó el Real Decreto 43/2015, de 2 febrero, por el que se modifica el Real Decreto 1393/2007, de 29 de octubre, por el que se establece la ordenación de las enseñanzas universitarias oficiales, dando lugar a la posibilidad de que las universidades puedan ofertar grados de tres años y master de dos años de duración.

Este cambio en la estructura de la enseñanza universitaria dará lugar a un encarecimiento de los estudios superiores al aumentar los años de master y, en muchos casos, conllevara obligar al alumnado que quiera desempeñar plenamente su profesión a tener que cursar dichos estudios, atacando la equidad de acceso a la enseñanza universitaria.

A su vez, la convivencia de diferentes sistemas universitarios dificultara la orientación del futuro alumnado y creara una situación de conflicto, que sumado a la premura de su implantación, no permitirá una correcta regulación de convalidaciones ni permitirá desarrollar los títulos sin que exista una devaluación de la calidad de la formación.

Una vez más, el Ministerio de educación ha planteado una reforma sin el dialogo adecuado con la comunidad educativa, que debe ser una requisito indispensable ante cualquier cambio en el sistema educativo de nuestro país. Esto, junto a las medidas tomadas por el Gobierno, ha provocado el rechazo de sindicatos, estudiantes y rectores que, en el caso de estos últimos, han aprobado en la Conferencia de Rectores de Universidades Españolas (CRUE) una moratoria para su implantación hasta 2017.

Esta reforma pretende hacerse a un coste cero, cuestión que debe sumarse a los recortes por parte del Gobierno Central, y a las dificultades tanto económicas como logísticas de implantación de la LOMCE, que se viene ya desarrollando sin suficientes recursos, por lo que es preciso un pronunciamiento claro en el que se exija al Gobierno de España que de un paso atrás en una reforma universitaria que encarecerá el sistema universitario y devaluara su calidad.

Por todo lo expuesto, las Juventudes Socialistas de Arrasate solicitan al Pleno de la Corporación la aprobación del siguiente

ACUERDO



Esp.-kodea: 2015SAPL0004

1.- *Apoyar la decisión de la CRUE sobre la moratoria para no implantar la reforma hasta el año 2017 en caso de no ser retirada.*

2.- *Instar al Gobierno de España a :*

- a) *Retirara inmediatamente el Real decreto 43/2015, de 2 de febrero, por el que se modifica el Real Decreto 1393/2007, de 29 de octubre, por el que se establece la ordenación de las enseñanzas universitarias oficiales, y el real decreto 99/2011, de 28 de enero, por el que regulan las enseñanzas oficiales de doctorado.*
- b) *Solicitar un informe al consejo de universidades sobre los resultados de la vigente ordenación de las enseñanzas universitarias oficiales.*
- c) *Promover en el seno de la conferencia general de política universitaria y del consejo de estudiantes universitarios del estado una comisión que elabore un informe sobre los efectos de la reforma promovida por el ministerio de educación en la financiación pública y privada de las universidades, en la igualdad de oportunidades y en el acceso al empleo de los titulados.”*

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Interbentziorik? Paco.

FRANCISCO GARCIA RAYA (PSE-EE): Arratsaldeon. Primero aclarar que la moción que se ha leído pone el grupo municipal del PSOE y evidentemente es un error quien lo ha presentado son las juventudes socialistas y este grupo lo que hace es apoyar esta moción. Por tanto la propuesta no viene del grupo municipal del PSOE, en todo caso sería el grupo municipal del PSE, sino que viene de las juventudes socialistas de Mondragón y nada, decir que estamos de acuerdo con la moción y que la vamos a apoyar. Supongo que la va a defender el portavoz de juventudes y nosotros nada más.

JOXE ETXEBERRIA (ARALAR): Arratsaldeon. Hor agertzen dan bezala, erreforma inposatua da. Ikasketen prezioen garestitzea dakar, ikasketen devaluazioa, graduei urte bat kendu nahi diote horrekin gradu horretarako edukiak desagertuko dira eta honen balioa devaluatuko da. Honen ordez, masterra urte bete luzatuko dute. Horrela graduak lehen zuen balioa eskuratzeko derrigorrezko egiteko bezala jarriz.

Unibertsitate bakoitzak aukeratu ahalko du zer nolako eredu garatu, fakultate baten hiru eredu ezberdinekin topatu gintezke bost urte jarraikoak, lau urte gehi urte bete masterra edo orain onartu denarekin 3 urte gehi 2 masterra.

Lehen eta bigarren mailako unibertsitateak sortuko dira banaketa ekonomikoaren arabera, lan prekariora kondenatutako kualifikazio baxuko ikasle asko bilatzen ditu 3 urtekoarekin geldituz gero eta masterrak ordaindu ahalko dituzten ikasle gutxi batzuk ordea elite bilakatuko dira. Honen aurrean bidea badago, euskal herrian eta euskal herritarren beharretara egokitutako unibertsitate sistema propioa.



Esp.-kodea: 2015SAPL0004

Euskal herriarekin garapen kultural, ekonomiko, sozial, teknologiko zein pedagogikora partaidetza demokratikoan oinarritutako unibertsitate publiko, herritar eta euskalduna.

Hau esanda, lehenengo puntuak moratoriaren alde egitea eskatzen du eta guk ez dugu moratoriarik nahi gai honetan erretiratzea nahi dugu. Argi eta garbi, beraz, abstentzioa bozkatuko dugu.

MAIDER MORRAS (BILDU): Arratsaldeon. Gu ere Joxek esandako hitzekin bate egiten dogu eta bueno komentatu, efektibamente, legearekin hasi zan hezkuntzaren erreforma honekin ikusi duguna da gero eta hezkuntza sistema merkantilizatuagoa eta zelabait kapitalistagoa edo neoliberala egiten ari dela ezta? Hasieran bekak kendu ziren, ikasketeten kostea igo zen eta orain Joxek esan duen bezala eta mozioak esaten duen bezala ezberdintasuna egingo da pribilegiatuak diren ikasle batzuekin eta bestalde ahin pribilegiatuak ez diren ikasleekin ezta?

Gauza da azkenean aberats eta pobreen arteko ezberdintasuna egingo dela, ze oso posible izango da ikasle batzuk ezin izatea master horiek egitea ez lehengo masterra eta bigarrena are gutxiago, orduan honek ekarriko dauena da hezkuntzaren pobrezia, bere kalitatearen maila gero eta baxuagoa eta horrekin ados gaude.

Abstentzioa bozkatutako dugu moratoriaren alde ez gauzelako baizik eta lege honen guztiz kontra gaude eta eskatzen duguna da bertan behera geratzea.

Eta bigarren puntua bezala gu ezker abertzaletik ba komentatzea guk ez diogula Espainiar Estatuari hau eskatzen baizik eta independenteak eta sozialistak garen aldetik, eskatzen dugula euskal hezkuntza sistema propioa gure errealitateira moldatzen dana, gure herriari aberastasuna emango diona hezkuntzaren bitartez eta gure ikasleei formazioa dagokion formazioa emango diona eta ikasle guztiak ehuneko ehunak izango duena goi mailako ikasketetara heltzeko eta ikasteko aukera eta horregatik abstentzioa bozkatuko dugu.

MARIA UBARRETXENA (EAJ-PNV): Guk be bai abstentzioa bozkatuko dugu. Hemen bai Joxek eta bai Mainerrek azaldu duten bezala gu ildo beretik goaz. Gu gainera uste dugu ezin garela egon Madrilek dionaren arabera, baizik eta pixkat gehiago begiratu behar diogula Europara eta hezkuntza sistemak joango beharko ginatela horruntz, homologatzen baina batez ere guk gure hezkuntza sistema propioa daukagula eta ez gaude moratoria baten alde baizik eta lege horren aurka gaude.

Publikotik (Mario Reyes, Juventudes Socialistas Arrasate): Yo soy Mario Reyes soy el secretario de organización de las Juventudes Socialistas y nuestra postura es la siguiente: Debido al Real Decreto 43/2015 de 2 de febrero que tiene en su modificación en la que da la opción de los tres años de carrera y los dos años de master nuestra postura es que se derogue.

Que se derogue porque realmente estos tres años de carrera en la que se está haciendo con los jóvenes en la carrera es la verdad, los costes de un master son realmente dos años y las dificultades que tienen de por sí los jóvenes para poder optar a un master son muy difíciles. El ministro añade ya



Esp.-kodea: 2015SAPL0004

que realmente esto hacia mucha más barata la educación, ya que se restaba un año, se resta un año pero de educación, se resta un año de formación, se resta un años de asignaturas y lo que se está haciendo es aplicar el sistema de precariedad contra la educación. Eso es lo que se está haciendo con los jóvenes y nuestra es realmente que aparte de encarecer la educación le resta calidad de educación por esas razones que nosotros consideramos que se debería de derogar completamente lo que esta reforma del 3 +2.

No solamente esto, sino que además de recortar en educación y encarecer la educación, sólomente consigue que sean jóvenes de un porcentaje que puedan llegar a esta educación. Efectivamente lo que mencionaba acá de que la educación prácticamente esta siendo una obligación a que los que puedan tengan el master. Bien aparte de ser una limitación se convierte en una obligación, porque nosotros los jóvenes, lo que queremos es completar nuestra especialización en una carrera no solamente tres, porque con tres años a que nivel competimos en el mercado laboral, con tres años con quien vamos a competir, si además de esto nos están quitando dos años, un años en master porque realmente si tienes que hacer dos años de master y no puedes hacerlo porque no tienes dinero como te lo costeas, como lo haces.

Las juventudes socialistas de Mondragón consideramos que estas limitaciones académicas, aparte de que se especializan en tres años, producen jóvenes que no están completamente especializados en la carrera, en el informe de la presentación del Ministro añadía que lo que consigue de que el joven salgan mas rápidos al mercado laboral. Efectivamente, lo consiguen, lo que está consiguiendo es que tengan jóvenes carne de cañon para las industrias si, pero no están consiguiendo profesionales con eso no consigue profesionales.

